


## KORRIKA 18



**EMAN  
EUSKARA  
ELKARRI**



## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Koldo  
Mitxelena eta Eibarko ikastetxeetako  
ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri  
eta Koldo Mitxelena.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa  
eta Koldo Mitxelena.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



KULTURA SAILA



Gipuzkoako  
Foru Aldundia

- Nola esaten da Madril txineraz?

- Txin-txan-pion-ligs

**Ander Luengo**

Gizon batek bere lagun bati deitu

nahi dio, baina nahi gabe

zapatadenda batera deitu du:

- Zapatadenda Gomez, bai?

- Barkatu baina zenbakiz

konfunditu naiz.

- Ba, ekarri lasai, aldatuko

dizut-eta.

**Lucia Amas**

Semeak amari:

- Ama, ez dut eskolara joatea nahi

hiru arrazoiengatik: atzo berandu

oheratu nintzelako, herriaren beste

puntan dagoelako eta umeak

burusoil deitzen didatelako.

Eta amak erantzun:

- Nik beste hirü arrazoi emango

dizkizut: lehenengo eta behin zure

legea delako, bigarrenez hogeita

bederatzi urte dituzulako eta

hirugarrenik eskolako zuzendaria

zarelako.

**Miren Elorza**

Mutiko batek amari:

- Ama, ama, eskolan aho haundi  
deitzen didate.

- Lasai, ume, eta ekarri pala,  
jogurta eman behar dizut-eta.

**Ainhoa Bilbatua**


- Zeintzuk dira animaliarik

zaharrenak?

- Pinguinoa eta zebra, zuri-beltzak

direlako.

**Lucia Robles**



# ikastetxeetako BERRIAK


Kaixo **Aldatze** ikastetxetik! Aratosteetan, gure ikastetxean, buruko apaingarri lehiaketa egin genuen. Hemen dituzue irabazleak! Bestalde, martxoaren 22an, LHko ikasleak txangoa egingo dute D'Elikatuz Zentroa bisitatzeko.



Kaixo **Juan Antonio Mogel** ikastolatik! Aurtengo neguan elurra mara-mara egin digu Eibarren, baina batez ere Iturburun. Elurtea egin zuen lehenengo egunean Elurte Plana martxan jarri behar izan genuen eta Mogel Isasira abiatu ginen bertan lana egitera. Bigarren egunetik aurrera, eta udaletxeko langileei esker, autobusak Iturbururaino igo ahal izan zuten. Horretarako palak, makinak eta indar dexente behar izan zen bidea garbitzeko. Zein ederra ikusten den ingurua eta gure Ikastola elurra egiten duenean!! Begira 4. mailakoek nola gozatu duten elur-panpina egiten.



# DENBORAPASAK



SULEN eta Yanda

Hiaki sora

A	M	P	E	T	O	E	S	L	E
R	A	I	A	H	I	A	O	L	L
R	D	P	R	R	S	T	H	H	L
A	A	A	R	Z	A	H	T	O	T
I	R	K	A	E	G	S	T	T	H
N	I	E	G	R	A	A	H	R	A
A	A	S	A	E	R	Z	O	R	O
Z	E	N	S	A	R	T	E	A	N
O	O	E	P	L	A	U	A	A	A
P	T	A	P	A	A	A	R	U	T
A	E	S	S	K	E	R	S	K	A
S	I	H	H	T	S	R	E	U	L
R	O	T	T	O	E	A	H	Z	P

Aurkitu 10 janarieraz izenak


- 1 Arantza
- 2 Araina
- 3 zora
- 4 zerealak
- 5 Esnea
- 6 Pipak
- 7 Sagarra
- 8 Madaria
- 9 Zukua
- 10 Prestanoa

Bilatu 7 akatzak



Alba eta David

- 1 Futbolari oro oro famatua
- 2 Ekerako lanak eramateko gaurra....
- 3 Zaborra botatzeko lekua.
- 4 Ezertren garen lekua.
- 5 Andereinoa marjotren duen lekua.
- 6 Eguzkia eta euria dagoenean ateratzen da....
- 7 Ordua ematen du.
- 8 Arkatza berratzeko gaurra.



GORETTI ETA JÜRGEN

## Korrika badator!

**T**ipi tapa, tipi tapa, KORRIKA!! Laster entzungo dugu esaldi hori gure herriko kaleetan. 18. Korrika martxan da eta martxoaren 14tik 24ra bitartean Euskal Herri osoa zeharkatuko du, Andoainen hasita Baionan amaitu arte.

Eman Euskara Elkarri. Horixe da aurtengo Korrikarako aukeratu duten goiburua. Martxoaren 14an Andoaindik irten zen euskararen aldeko lasterketa eta gure herrira martxoaren 20an, eguaztena, ailegatuko da, arratsaldeko 18.00ak ingu-

ruan. Ermutik sartuko da Eibarrera eta, herrikerik bi buelta eman eta gero, Soralezek hartuko digu lekukoa.

Bi urtetik behin antolatzen den lasterketan eibartar mordoak hartzen du parte eta, nola ez, baita ume ugari ere. Gainera, Korrika nagusiaz gainera, Korrika Txikia ere egiten dugu herrian eta aurtengoan, euskara ahoan, korrika irteteko aukera izango duzue Eibarko ume guztiek.

Martxoaren 20an bertan, Korrika nagusia iritsi aurretik irtengo zarete ikastetxea-



rekin herriko kaleetara, euskararen alde egitera. Baina gogoan izan euskara ez dugula ahoan soilik horrelako egunetan izan behar; urte osoan erabili behar dugula.

Eibarko ikastetxe guztietako haur eta gazteak irtengo zarete Korrika Txikian, nagusiena iritsi aurretik. Bakoitzak bere ibilbidea egin ondoren, Eibarko Bizikleta plazan elkartuko zarete eta bertan irakurriko duzue aurtengo mezua, jai giroan.

Badakizue, beraz, martxoaren 20an denok Korrika euskararen alde!

- Korrika AEK-k antolatzen du.
- 1.º Korrika 1980. urtean egin zen; Oñatin hasi eta Bilbon amaituz.
- Aurten 18. edizioa beteko du eta guztira bi mila kilometro baino gehiago egingo ditu, gau eta egun, gelditu gabe.
- Korrika hasi eta amaitu arte, lekukoa pasatzen da eskuz esku. Helmugara iristean, euskaldun ezagun batek irakurriko du lekukoaren barruan dagoen mezua, ordura arte sekretupean gorde dena.



Nagusixen eta umien artian desbardinttasun haundixak izaten dirala pentsatzen dogu, baiña zer gertauko zan galdera bardiña egitten badetsagu nagusixari eta umiari? Horrenbesteko aldia egongo ei da?

## ***Zeiñ urtaro gustatzen jatzu gehixen? Eta gitxien?***

### **AITOR VICENTE, 9 URTE**

Neri gehixen gustatzen jatan urtarua negua da. Elurra egitten dabengan asko gustatzen jata jolastia, eta hotza be gustatzen jata. Eta gitxien gustatzen jatana udazkena da: eskola hasiera da eta luzea egitten jata.

### **MARKEL MADRIGAL, 10 URTE**

Uda da gehixen gustatzen jatan urtarua. Oporrak dittugu, eguna luziagua da, eta lagunekin ondo pasatzen dotelako hondartzan eta igerilekuan. Udazkena da gitxien gustatzen jatana, eskola hasten dalako.

### **MIRIAM GOMEZ, 39 URTE**

Uda da gehixen gustatzen jatan urtarua, hondartzara juateko, oporrak dittugulako, kalia denpora gehixago pasatzen dogulako, eta umiekin be denbora libre gehixago dakagulako. Gitxien, barriz, udaberrixa, ez desta ondo egitten.

### **ARRATE URIONAGUENA, 36 URTE**

Gehixen gustatzen jatan urtarua uda da. Eguraldi ona, egunak luziaguak, umiekin egoteko denbora gehixago, oporrak... Eta udaberrixa da gitxien gustatzen jatana. Hemen, Euskal Herrixan, udaberrixa ez da ez negu ez uda. Luzia egitten jata udia aillegatu arte.







## **Polenari alergia**

Umeen artean elikagai-alergiak ohikoenak izan arren, polen-alergiak ere ume askori eragiten dio. Udaberria gain-gainean dugun honetan, hona hemen hainbat aholku alergia horri aurre egiteko, kontutan izanik pediatriak esandakoa gailendu behar dela beti.

## ***Zeintzuk garatzen dute polen-alergia?***

Egiaztatu barik badago ere, badirudi aurrejoera genetikoa egon daitekeela, eta ohikoa izaten da patologia hori garatzen duten umeek bestelako elikagai edo ingurumen-substantzienganako alergia ere izatea. Adin guztietako haurrek izaten duten arren, normalean sintomak oso goiz agertzen dira.

## ***Sintoma nagusiak***

Arnasa hartzeko zailtasuna, begietako azkurea, lehortasuna ezpainetan edo azkurea gorputzeko hainbat ataletan: lepoan, buruko ile-larruan, besoetan...

Udaberrian eta udan saihestezina da polena arnatea. Zuhaitz, zuhaixka eta sasitzek polen ugari askatzen dute urtaro horietan eta, beraz, kontuz ibili beharra dago. Gomendagarria da jakitea zein landare eta lore diren alergiarentzako kaltegarrienak, eta nola eta non ekidin daitezkeen horiek.

Zuen seme-alabentzat kaltegarrienak diren loreak zeintzuk diren jakitea zaila iruditzen bazaizue ere, kontutan izan ikusgarrienak eta koloretsuenak ez direnak direla.

Etxean aire egokitua baduzue, adituek martxan egotea gomendatzen dute. Horrez gainera, gaur egun autoetan jartzeko polenaren kontrako iragazki edo filtroak ere badaude.





## *Saltxitxa eta pure gaztelua*

### ZER BEHAR DUGU?

- ✂ SALTXITXA ZURI BAT GAZTELU BAKOITZARENTZAT
- ✂ PATATA-PURE SOBRE BAT
- ✂ ARRAUTZA BAT
- ✂ ESNE-GAIN LIKIDOA
- ✂ BASO BAT ARDO-ZURI
- ✂ BASO BAT ESNE
- ✂ BARATXURI-ALE BAT
- ✂ PERREXILA
- ✂ HARAGI-SALDA PASTILLA BAT
- ✂ TIPULA BAT
- ✂ AZENARIO EGOSI POTE BAT
- ✂ URA



### **Pausoak:**

1.- Patata-pure potoloa egin. Gozoagoa gera dadin, baso bat esne, gurin koilarakada bi, arrautza bat eta esne-gain likido txorrostada bat.

2.- Tipula zati txikietan moztu eta oliba-olioan frijitu, baratxuria eta txikitutako perrexilarekin batera. Tipula biguna dagoenean, gehitu saltxitxak, ardo zuria, haragi-salda pastilla eta ur pixka bat. Su txikian egin dena batera.

3.- Saltxitxek urre kolorea hartu dutenean moztu saltxitxa bakoitza lau zatitan.

4.- Jarri purea plateraren erdian eta saltxitxa zati bat albo bakoitzean. Haresia egiteko erabili azenario zatiak eta beste azenario zati bat jarri zotz batean, bandera moduan.

5.- Sobratu den zukua gazteluaren inguruan bota, gaztelu-zuloa izango baltiz moduan.

# etxeko SUKALDARIA

## BOTILA BERRERABILGARRIAK

Zenbat aldiz entzungo zenuten zein garrantzitsua den birziklatzea, ezta? Askotan zakarrontzira botatzen ditugun gauzetako askorekin eskulan politak egin ditzakegu. Jarraitu pausoak eta ikusiko duzue zein eskulan polita egingo duzuen.

### OSAGIAK

- ✓ Ur-botila txiki bat
- ✓ "Goma Eva" izeneko materiala: beltza, berdea, urdina, horia eta laranja.
- ✓ Mugitzen diren begitxoak
- ✓ Itsasgarria
- ✓ Arkatza
- ✓ Artaziak

### Lehen urratsa


Marratzu hegoak goma eva berdean eta urdinean eta moztu. Bihotzak edo bes-telako irudiak ere moztu ditzakezue beste koloreetan, hegoak apaintzeko.

### Bigarren urratsa

Itsatsi hori guztia itsasgarriarekin eta laga lehortzen. Hegoak prest daudenean itsatsi botilari eta utzi berriro lehortzen.

### Hirugarren urratsa

Moztu antenak, sudurra eta antenen apaingarriak, argazkian dauden bezala, eta itsatsi gero botilari eta tximeleta zoragarria irtengo zaizue. Polita gelditu da, ezta?



# INTERNETEN...

## ARIES

Datozen egunotan umoretsu egongo zara eta zure ingurukoek eskertuko dute, azkenaldian pipertuta zabilta-eta. Zaindu ez! Hori.

## TAURUS

Izarrek esaten didatenez, aste batzuk barru sorpresatxo bat jasoko duzu. Aspaldian ikusiko gabeko lagun bat akaso... Bestalde, 8 zenbakiak zortea ekarriko dizu.

## GEMINIS

Jarrera aldatu duzu eta etxekoak pozik dituzu. Segi horrela, merezitako saria ere laster jasoko duzu-eta. Hilabete honetan zortea ekarriko dizun zenbaki 7 izango da.

## CANCER

Maiteminduta zaude ala, Cancer maitea? Sintoma guztiak dituzu: tximeletak sabelean, urduritasuna, goserik ez... Ai, gure txikia hazten ari da!!

## LEO

Inbidia zein txarra den! Eziozu kasurik egin, amorrarazi egin nahi zaitu, besterik ez. Zeuk eutsi gogor zeureari eta ez du bere helburua lortuko. Animo!

## VIRGO

Aste Santuko oporretarako falta diren egunak kontatu eta kontatu zabilta! Lasai, laster etorriko dira eta orduan hartuko duzu merezitako atseden. Lasai hartu.

## LIBRA

Zein mizkina zaren jateko! Ez barazkirik, ez frutarik... Baina gozokiak tokatzen direnean, bai ezta? Hori ezin da izan. Zaindu gehiago jaten duzuna, gorputzak eskertuko dizu.

## SCORPIUS

Pailazoarena egitea ondo dago, baina dena bere neurrian! Gauza guztiak dute euren momentua eta jakin egin beharko zenuke bereizten. 3 zenbakiak zortea ekarriko dizu.

## SAGITARIUS

Datozen asteetan oso ondo jardungo duzu ikasketetan, baina egiten duzun ahaleginari esker izango da hori. Oso ondo zabilta, jarraitu horrela!

## CAPRICORNIUS

Gehiago irakurri beharko zenukeela zenbat aldiz entzun duzu? Egia da baina! Liburu bat irakurtzea baino gauza politagorik!! Ala, animo eta aurrera.

## ACUARIUS

Lagun horrek betaurrekoak dituela? Bestea apur bat gizona dagoela? Harek ile kizkurra duela? Barrerik ez egin gero, eh? Ia buelta etorriko zaizun gero!

## PISCIS

Loari ez kendu denbora gehiago, mesedez! Goizetan zontzia dirudizu, barren! Eta noski, eskolan ere mar-txan jarri orduko, ia-ia bazkal-ordua. Espabilatu!!

## www.euskalnature.net

Natura gustatzen bazaizue hemen duzue zuentzat web orri aproposa. Informazio ugari aurkituko duzue: Euskal Herriko animaliak, landareak, onddoak, naturgu-neak, argazki-galeria... eta orohar ingurumenarekin lotutako gauza mordoak. Horrez gainera, erakusketa eta irteeren berri ere izango duzue.

## www.eitb.com/eu/hiru3

Euskal Telebistako hirugarren katearen inguruko informazioa biltzen du orrialde honek. Marrakzi bizidunak ikus ditzazkezu: Aita-amabitxi magikoak, Abeltxoroak, Burdin-aho, Doraemon, Hartz Txiki, Kodea Lyoko, Shin Chan... Horrez gain, jokoak, eskulanak, abestiak, zozketak eta gurasoentzako txokoa ere aurkituko dituzue.



## ASTAKILOAK, AFRIKAKO ZUHAITZ TXIKIA

Astakiloek, Afrikako oihanean ibili eta gero, etxerako bidea hartu zuten beren kamioian. Oso bidaia luzea zen. Aurrena oihan ertzeraino joan behar zuten; gero, oihan ertza laga eta sabana izeneko zelai handia zeharkatu...



## NIRE AITA ETXekoANDREA DA, ETA ZER?

Handiak eta txikiak, berritsuak eta lotsatiak, gizenak eta argalak... persona guztiok ez gara berdinak. Eta zer? Liburu hau ere desberdina da; horrexegatik da polita. Baietz gustatu!



## RITA ERRALDOIA

Ritak altuagoa izan nahi du. Gelako txikiena da eta kokoteraino dago. Gainera, aldizkari horietako batean irakurri du emakume altuak baino ez direla iristen arrakastaren gailurrera. Gurasoei eskatu die laguntza, baina haiek beti gauza bera esaten diote: ez kezkatzeko, den bezala maite dutela guztiak. Egun batez, ordea, edabe magiko bat aurkituko du Ritak herriko azokan. Ausartuko ote da hartzera?



## HURRIZTIKO TXITOA

Behin batean bazen txito bat. Hurrak jaten ari zen, eta bat eztarrian trabatu zitzaion. Txitoa itotzen hasi zen...



## AITATEGIA

Jaime haserre dago bere aitarekin: beti dabil presaka eta dena ahazten zaio. Bere lagun Elenak Aitategi bat non dagoen kontatuko dio, eta han maileguan atera ditzakeela nahi dituen aita guztiak. Jaimek Aita Antolatzailea probatuko du, eta Aita Azkarra eta Aita Atsegina... Aurkituko ote du Jaimek berak nahi bezalako aita?



## JUNIE B. JONES ETA ANAIATXO MOÑOÑOA

Niniek KK-usaina dute. Horixe etorri zaio burura Junie B.-ri, anaiatxo bat izango duela jakitean. Baina iritzia aldatuko du, amonak inoiz ikusi duen tximinotxo moñoñoena dela esaten dienean. Anaia tximinoa da, oihaneakoak bezalakoa! Eskolako lagunei esaten dienean, aho zabalik geratuko dira denak, bai horixe!



## OILOAREN BANAKETA

**A**spaldi-aspaldi, familia behartsu bat bizi zen. Gabonak ziren eta ezer gutxi zeukaten ahoratzeko. Etxean animalia bakarra zegoen, oiloa. Aitak, oiloa gabon afarirako hiltzea pentsatu zuen eta halaxe egin zuen. Ama etxera itzuli zenean, harrituta geratu zen:

- "Zer egin duzu, baina? Oiloa zen gure ondasun bakarra!"

Aitak erantzun zion:

- "Ba! Horregatik ez gara behartsuagoak izango..."

Ama oso argia zen, eta ideia bat bururatu zitzaion.

- "Ekatzu oiloa, probetxua aterako diogu".

Erregearengana jo zuen eta zera esan zion haren bihotza bigunduko zuelakoan.

- "Bihar Gabon gaua da, jauna; gu oso txiroak gara, baina zu, on hutsa zarenez, gure ondasun bakarra zeuri ematea pentsatu dugu".

Erregeak berehala antzeman zuen azpizokoa: "honek ziria sartu eta opari eder bat nahi du, baina neuk sartuko diot ziria".

- "Eskerrik asko; baina, oilo bakarra nire familiakoen artean banatzen badut, liskarra besterik ez dut sortuko. Banatu zeuk, nire emazte, bi alaba, bi seme eta neure artean. Eta, denok pozik uzten bagaituzu, saria emango dizut. Baina norbaitek bestearen zatia nahi badu, zigortu egingo zaitut". Amak oiloaren burua ebaki, eta erregeari eman zion:

- "Jauna, zuk gauza asko pentsatu behar duzu, erresumaren burua zara, beraz, burua dagokizu".

Gero erregeinari: "Andrea, zuk zure tronoan eserita, zerbitzariei agintzen diezu: tori zuri dagokizun zatia". Eta ipurdia eman zion. Gero bi hankak ebaki eta printzeei eskaini zizkien: "Munduan barrera, bazterrak ezagutzera joatea komeni zaizuen, hankak dira zuentzat atalik egokienak", eta alabentzat hegoak ebaki zituen: "Laster aitaren habia lagako duzue ezkontzeko, eta horixe da

beharko duzuen, hegoak... gainerako haragi guztia behartsuentzat utziko dugu... eta ni, behartsua naizenez, neuretzat hartuko dut...". Erregeari barre eragin zion banaketa hark eta saria eman zion. Ja, umore oneko errege hura!... Ja, bai zera! Eskerrak umore onean harapatu zuela, bestela...



**Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...**

## JENTILAK

**E**uskal Herri osoan dira entzunak pertsonaia mitologiko ezagun hauek. Gizaseme basatiak, erraldoiak eta indartsuak ziren, harkaitz puska ikaragarriak urrutira botatzen zituztenak. Horregatik, leku askotan agertzen diren harriztarrei Jentilak deitzen zaie. Harrespil eta trikuharri ugari eraiki zituzten; oro har, monumento megalitikoaren sortzaile bezala agertzen zaizkigu. Eginoko herriko gizon bat mendira joan zen, baina zoritxarrez Jentilak topatu zituen eta euren bizilekua zen Jentilkobara eramane zuten. Bertan, Jentil amon bat zegoen eta, gizona ikustean, esan zuen: - Gibeltxo freskoak nahi ditut! Gibeltxo freskoak nahi ditut! Eginoko gizona, ihes egiteko asmoz, tripuak nahastuta zeuzkala eta beharrak egitera kanpora ateratzen uzteko eskatu zien. Jentilak gizonaren asmoak antzeman zituztenez, soka batekin hanka lotu zioten eta harkaitz baten atzera joateko esan. Gizonak soka adar bati lotu zion, eta jentilak sokari ten egitean bertan jarraitzen zuela pentsatu zuten. Gizonak mendian gora ihes egin zuen; baina, Jentilak konfaturatu zirenean, haserre bizian, txakur piztiak lagun zituztela, gizonaren atzetik abiatu ziren. Baina, maldan gora zihoazela, une batean txakurrak eremu baten inguruan biraka hasi ziren, eta aztarna galdua izango zutela pentsatu zuten. Gizona alde eginda, urrun izango zela pentsatu zuten, eta haitzulora itzuli ziren. Eginoko gizona, ordea, haritz batera igota zegoen, eta horrelaxe jentilen atzaparretatik ihes egitea lortu zuen.

**Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko. MEREZI DU...**



# JENTIL



**zu margolari!**